



## FUNTZIONAMENDU-ARAUAK Ospitaleratze Unitatea - PEDIATRIA

### Deitu behar badiguzu, ERABILI GELAKO TXIRRINA. EZ ATERA KONTROLERA. GURE ZERBITZUAN ZAUDEN BITARTEAN JARRAITU BEHARREKO ARAU OROKORRAK

- Unitatean edoskitze-aldian dauden haurrentzako gunek bat dago sehaskekin eta eskola-umeentzako gunek bat oheekin.
- Eskola-umeen geletan, ospitaleratutako haurrek komun bat dute. Bularreko umeen gunean ez dago komunik. Senideentzako edo lagunentzako komuna korridorean dago, Unitatearen barruan, edo igogailuen guneko hall-ean.
- Zure haurra senide edo lagun batekin egon behar du 24 orduz.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratze unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurduinak edo lurgabeak.
- Unitatean honako hauek daude:
  - **Ikasgela** eta irakasle elebiduna eskola-umeentzat. Orduategia: 10:00-13:00 eta 15:00-17:00. Zure haurraren prozesuak onartuz gero, eskoletara joateko aukera izango du. Pediatrak horren inguruko informazioa eskainiko dizu.
  - **Zibergela** ordenagailu batekin, haurrentzat eta senideentzat. Orduategia: astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara.
  - **Jolas-gela:** bertan sartzeko eskatu giltza erizaintzako langileei. Erabili ondoren (10:00-20:00), txukundu gela.
  - Erizaintzako langileek zure haurrari beharrezko zaintzak eskainiko dizkiote. Zure haurraren prozesua ongi kontrolatzearen, ez eman elikagairik ez eta medikamenturik aurretik erizaintzako langileekin kontsultatu gabe.

### PEDIATRIA UNITATE KIRURGIKOKO INFORMAZIOA ETA ARAUAK



- Haurra ospitaleratzean bi pertsonak lagundu dezakete, besteek hallean geratu beharko dute.
- Zelari batek kirurgia-gunera eramango du haurra eta bi senidek lagun dezakete.
- Interbentzioa amaitzean zirujaua kirurgiako itxaron-gunera aterako da senideei berri ematera. Haurra ABURa eramango dute, eta bertan senide bat harekin egon daiteke.
- Anestesistak hala dionean, haurra Pediatria Unitateko gelara itzuliko da.
- Ez dago haur kirurgikoak bisitatzeko ordu finkorik, bisitak goizean zehar egingo dira.

### MEDIKUAREN BISITA PEDIATRIA UNITATERA



- Pediatra-taldeak normalean 09:30etik aurrera bisitatuko du haurra. Bisitan zehar gurasoak edo arduradunak gelan egongo dira, medikuek eboluzioaren eta plangintzaren inguruan informazioa eskaintzeko.

### SENIDEENTZAKO INFORMAZIOA

- MEDIKUAREN BISITA AMAITZEAN emango zaie haurraren eboluzioaren inguruko informazioa. Unitateak ongi funtziona dezan, ekidin bisitak medikuen bisiten orduategian eta ez gelditu korridorean.

### BAZKARIAK



8:45	Gosaria
12:45	Bazkaria
16:45	Merienda
19:45	Afaria

Biberioiak hartzeko orduegiak haurraren eta hartualdien kopuruen arabera dira. Amak bularra eman nahi badio, eskatu egin beharko du.

### BISITAK

- Gehienez 2 pertsonak bisita dezakete haur bakoitza, 24 orduz berarekin dagoen senidea barne (salbuespenak daude).
- Kutsatzea ekiditeko, ez da gomendatzen 12 urte baino gutxiagoko haurrek ospitalean bisitak egitea.

### BESTE DATU BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Pazienteek eta/edo senideek ospitaleratzearen ziurtagiria behar badute enpresarentzako eta/edo familiako medikuarentzako, beheko solairuko Onarpen Zerbitzuan jaso beharko dute.



**TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA:** 945-007000  
8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882.  
Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.



**KAFETEGIA-ZERBITZUA.** *Orduategia:* 08:00-22:00.  
Sotoartean dago.  
Igogailuen hallean kafe- eta freskagarri-makina dago.



**OSPITALEKO ALTA.** Medikuen bisitaren ondoren emango dizute ospitaleko altari buruzko informazioa.



### Laguntza erlijiosa eta espirituala:

- Ospitaleak zerbitzu erlijioso katolikoa du Kapean (1. solairuan). Harrera erlijiosoaren orduategia: egunero 8:30etik 20:30era. Mezen orduategia: Igande eta jaiegunetan 11:00etan.
- Beste erlijio batzuetako pazienteek eta senideek laguntza eskatu diezaizkete euren arimako maisuari.

**PAZIENTEAREN ETA ERABILTZAILEAREN ARRETA-ZERBITZUA (PEAZ).** Zerbitzu hori behar izanez gero, galdetu Unitateko Gainbegiraleari. *Orduategia:* astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara.